

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

'8 txiki HANDI!' izeneko argazki erakusketa inauguratu du Solana kontseilariak

Erriberri herrian dagoen Vianako Printzea eskola publikoan ikasten duten Haur Hezkuntzako umek sortu dute argazki mostra

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 23

María Roncesvalles Solana Arana Hezkuntza Kontseilaria arduratu da gaur arratsaldean Kondestable jauregian jarri duten erakusketaren irekieraz. "8 txiki HANDI!" Erriberriko eskola publikoko D ereduan ikasten duten Haur Hezkuntzako 8 umek eginiko argazkiekin osatuta dago. Ateak zabaltzen dituen mostrara ere gerturatu da Iruñeko Kultura Zinegotzi Mainer Beloki. Bertan jarritako irudiak, ikuspuntu berezia duten argazkiak, 3 eta 5 urte bitarteko umek eginikoak dira. Zehazki: Jon, Ainhitze, Garazi, Irene, Jone, Kentia, Mikel A. eta Mireia izan dira argazkilariak. Ainhoa Tejerina, irakaslea eta proiektuaren egilea, bertan izan da. Baita Jaime Martin argazkilari erretiratua ere, boluntario moduan ibili baita erakusketa antolatzen.



Solana kontseilaria eta Mainer Beloki zinegotzia ikastetxeko ordezkari eta proiektuko arduradunarekin batera.

Mostra txiki handi hau otsailaren 24ra arte bisitatu daiteke.